

Inicio > Ocio y cultura > Cultura

Iraganeko kezak gogora ekarri ditu 'Orbanak' eleberriak

PELLO LIZARRALDEK LEHENENGO PERTSONA ERABILI DU NARRATZAILE GISA AURRENEKOZ

"Orain dela 56 urtetik idazten dudana zalantzatik abiatzen da eta zalantza du helburu nagusi", dio egileak

OIHAN VITORIA - Domingo, 13 de Mayo de 2012 - Actualizado a las 05:12h

☆☆☆☆☆ (1 voto) | [icomenta!](#)

Twitter 0

Recomendar 1



Pello Lizarralde idalea, Donostiako Alde Zaharrean. (Ruben Plaza)

DONOSTIA. Orbanak betiko estali ditu Pello Lizarralde. Zumarragako idazleak iraganeko kezak jaso ditu *Orbanak* (Erein) izenburupean argitaratu duen azken nobelan. "Txiki-txikitako estanpak jorratu ditut eta bizipen guztiak nireak ez diren arren, haurtzaroan presente izan nituen. Funtsean, bizitza luzea erakusten du liburuak", zehaztu zuen egile gipuzkoarrak Donostian eginiko aurkezpen ekitaldian.

Horrenbeste eleberriz plazaratzen den honetan, Lizarralde zail ikusten du bere proposamen berria definitzea: "Eskaini dezakedanaz pentsatzen jarriz gero, lanak izango nituzke idatzi dudanaren erakargarritasuna erakusteko. Hori dela eta, hobe dut onartzea azken nobela honetan aurrekoetan zegoena dagoela, kapitulu bat besterik ez diodala erantsi, alegia" argudiatu zuen.

Edonola ere, *Orbanak* liburuak baditu berritasunak teknika narratiboei erreparatu gero. Alde batetik, Lizarralde aurreneko aldiz erabili du lehenengo pertsonan mintzo den norbait narratzaile gisa. "Esperimentu polita eta aberasgarria izan da. Nire iritzi, beste tonu eta ahots mundutarragoa eskaini-tzen dio irakurleari", adierazi zuen. Bestalde, oraingoan istorioaren egitura bideratzen duen ispilu txiki batez baliatu da. Hori horrela, bi ahots daude liburuaren baitan: iheslariaren arrastoaren atzetik dabilena (lehenengo pertsonan) eta iheslariaren ikuspuntutik jasotakoa (hirugarren pertsonan).

Pello Lizarralde bere estiloari fidela izan da. Ez dio hutsik egin orain arte jorrotutako idazkerari eta nobelagintza gorabeheratsua baztertu egin du. Bere eleberrietan ohikoa den legez, *Orbanaken* istorioa hari baten jarraipena da. "Urteetan zehar burutik kendu ezinik eduki ditudan irudi batzuek eragina izan dute idatzitako sor-tzerako garaian. *Iragaitzaz* liburuak bukatu nuenean konturatu nintzen bide horretatik ezin nuela aurrera egin. Soka hori ezin nuen gehiago estutu. Beraz, airean utzi nituen hainbat konturi tiraka eraiki dut azken lana", azpimarratu zuen ospedun eleberrigileak. Liburuak aurreko nobela batean jatorria badu ere, "bortxatu gabe eta berez" sortutako zerbait izan dela nabarmendu zuen.

Vista:

[Más texto](#)

[Más visual](#)




publicidad

Más sobre Cultura

Paisajes de agua, tierra y tiempo



El 18º Festival de Títeres de Barañáin rinde tributo a Juan Faro



La ENT acogerá en mayo el V Ciclo de humor en euskera 'Irri Ziklo Bost 2012'

Un verano musical por todo lo alto

La bailarina navarra Eukene Sagüés recibe varios premios en Francia

educación > Irigo Pirfano presentará un libro y ofrecerá un concierto el martes en el colegio mayor Belagua de la UN

[ir a Cultura >](#)

publicidad

Ver Teléfono
Find more sources/options for what you are looking for
www.webcrawler.com

publicidad

LO + LEÍDO LO + VOTADO LO + COMENTADO

- Mercadona plantea abrir un hipermercado en el campo de fútbol de la Peña Sport
- Salud unifica Traumatología y agrupa cirugía en Ubarmin para reducir espera
- Nekounam:** "Me quedo en Osasuna porque valoro la felicidad más que el dinero"
- "Ésta es, sobre todo, una crisis de sinvergüenzas"
- Carta abierta a Barcina (*)

[ver listado completo >](#)

FOTOS GALERÍAS



Osasuna golea al Racing pero despierta del sueño europeo
Los rojillos se imponen a un descendido Racing (2-4), pero la victoria del Atlético de Madrid en Villarreal (0-1), que hunde a los amarillos en Segunda, impide la gesta.

Idazketarekin oso zorrotza da egilea, baina estilo beraren gaintik idazlearen nahia, grina eta anbizioa lehenesten ditu. Anekdotak gutxiokoa da bere literatura eta nobelak paisaiaren barruan hartzen du. Pertsonaiek zeharkatzen dituzten paisaia eta lekuen deskribapenek indarra hartu dute irakurlea toki horietan barneratzeko asmoarekin.

IDAZKETA DOSIFIKATUA Askotan, informazioa ezkutatzeko edo tantaka-tantaka emateko joera duela aitortu zuen idazleak. Dena den, "irakurlea azkarra" dela eta "idazten ez dena ere liburuaren parte" dela zehaztu zuen. Halaber, labur-tzeko joera hori "arriskutsua" izan daitekeela gaineratu zuen: "Istorioan efektu positibo zein negatiboa izan dezake eta ikusleari nahasmena eragin diezaioke".

Pello Lizarralde ibilbide luzea darama euskal literaturgintzan. 56 urterekin zazpi eleberrir argitaratu ditu eta beste hainbeste bidean geratu dira. Gehienak lau eta sei urte bitarteko epean idatzi ditu, 1978tik hasi eta 2012. urtera arte. Guztietatik esanguratsuenak *Sargori* (1994) eta *Larrepetit* (2003) liburuak dira. Azken honek, gainera, Euskadi Literatura saria erdietsi zuen duela bederatzita urte.

☆☆☆☆ (1 voto) | [icomenta!](#) (2) [Recomendar](#) 1

imprimir

publicidad

Protect your wheels. And your wallet.

Haz tu comentario

Comentarios
Número de caracteres (500/500)

introduce tu comentario

Condiciones de uso

- No están permitidos los comentarios no acordes a la temática o que atenten contra el derecho al honor e intimidad de terceros, puedan resultar injuriosos, calumniadores, infrinjan cualquier normativa o derecho de terceros.
- El usuario es el único responsable de sus comentarios.
- Diario de Noticias se reserva el derecho a eliminarlos.

Correo electrónico

 Recordarme la próxima vez

Contraseña

[¿Olvidaste tu contraseña?](#)

Soy usuario registrado
Introduce tus datos.

[Quiero registrarme](#). Sólo tardarás un minuto. El comentario se enviará después de registrarte.

publicidad



Grupo Iruña, en semifinales
Los de Jareño logran el pase en La Palma tras un igualado partido que acabó en prórroga (72-78).



Cívica necesitará 1.287 millones para cubrir las nuevas exigencias de capital



Rajoy culpa al PSOE de tener que lanzar la reforma financiera 'tarde y mal'



La crisis económica fuerza a mujeres maltratadas a regresar con su agresor
El 23% de las atendidas en Urgencias volvió con su pareja en el pasado año, frente al 18% en 2002.

BLOGS [Ver todos](#)

Ya falta menos... unos 5.000 kilómetros...

Jomada 59, km 1.059: Ruesta El primer hito de Guillermo en su paseo por "La Memoria es el Camino" fue una etapa Finisterre-Finisterre. 2'8 km. Un ritmo vertiginoso, dándolo todo por la causa. A ese paso, pensamos, llegar a [Sigue leyendo](#)

15-M o cómo la revolución bien entendida e...

Ir a cambiar Euros por Libras Esterlinas ha sido todo un poema hoy. El otrora repleto hall de la oficina principal de la caja de ahorros, hoy era pasto de arbustos rodantes como en cualquier mal desierto. Los billetes han resultado toda una sorpresa... [Sigue leyendo](#)

El new deal europeo o de cómo crecer auste...

El triunfo de François Hollande en las elecciones presidenciales francesas a hecho correr por Europa la especie de falso debate entre los defensores de la austeridad y los partidarios del crecimiento económico. Como si una cosa estuviera refiriendo... [Sigue leyendo](#)

Feey es libre y gratuito [Haz el tuyo](#) [Con acento hispano](#)

publicidad